2024/2025 JARDUERA-PROGRAMA

25 ↓ 26

# Arabako Lautadako *Kuadrilla*

Arabako emakumeon berdintasunerako eta jabekuntzarako eskola



laia.araba.eus

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA
CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA

araba álava

Laia

# LAIAeskola Lautada

**INFORMAZIOA, KONTAKTUA ETA IZEN-EMATEAK:**


Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua:

945 30 12 00

arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus

Senda de Langarica plaza, 4. 01200 Salvatierra-Agurain, Araba

www.arabakolautada.eus


**Inskripzioa daukaten jardueren izen-emate epea:**
ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte

**Haurtzaindegi eta garraio zerbitzua:**
ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte

**Gure buletin digitalean izena eman laia.araba.eus bidez**

@LaiaAraba @LaiaAraba @LaiaAraba laia.araba.eus

**#LAIAeskolaLautada**

Asparreneko Udala
Ayuntamiento de Asparrena

Burgeluko Udala
Ayuntamiento de Elburgo

DONEMILIAGAKO UDALA (ARABA)
AYUNTAMIENTO DE SAN MILLÁN (ALAVA)


Edukiaren elaborazioa: Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
LAIAko Idazkaritza teknikoa: Berdintasun Proiektuak, S. Coop. www.berdintasun.org
Sormen zuzendaritza: Labox www.labox.es
Diseinua eta maketazioa: La Debacle www.ladebacle.com
Inprimatzailea: Arabako Foru Aldundia
L.G.: LG G 496-2024

# Aurkibidea


LAIAeskola Lautada **2**
Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua **5**
Erakundeen arteko koordinazio guneak **6**
Eraso matxistarik gabeko jai askeak **7**
Araba LGTBIQ+fobiaren kontra saretzen **8**
Arabako kontzejuetan emakume gehiago egotearen alde! **9**
Gaztelaniaren eta euskararen erabilera inklusiborako gida Hizkuntzak axola duelako **10**
Bizilagunak 2025 **11**
Eskualdeko Topaketa: Zurekin egingo dugu **12**
Aisialdi- eta jai-guneetako protokoloak. Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko guneak jaietan **14**
Ikerketa: Iruraiz-Gaunako emakumeen memoria. Bidaia ondarean zehar **15**
Irakurketa klub feminista gaztelaniaz. Con Tintas Feministas **16**
Irakurketa klub feminista euskaraz. Lerroetatik kanpo **17**
Arabako Lautadako Kuadrillako indarkeria matxistaren biktimei eta biziraun dutenei laguntzeko programa **18**
Sexualitateari buruzko informazio gunea genero- ikuspegitik **19**
Maskulinitate parekide berriak eraikitzeko programa **21**
Adineko pertsonentzako Berdintasun Programa **22**
Gorputzetik sentsibilizatzeko eta ahalduntzeko programa: ¡Cuídame & cuídome! **23**
Ahizpatasuna eta ahalduntzea sustatzeko eta indarkeria matxisten prebentziorako programa **24**
URBIDE programa: Zeharkaldi sortzailea ikuspegi feministatik **25**
Tailerra: Antzerki feminista **26**
Sexu-heziketa lantzeko programa integrala. Barrundiako Eskola Txikia **27**
Berdintasunaren aldeko ipuin laburren X. lehiaketa **28**
Tailerrak: Autodefentsa feminista eta maskulinitate berriak **29**
Garbitzaileei omenaldia **30**
Hezkidetza jolasen XV. Jaialdia **31**
Arabako batukada feministen lehen topaketa **32**
Zine-foruma: No apto para cobardes. 50 urteko 50 emakumeren dokumentala **33**
Argazki erakusketa: Indarkeria matxista: Zutik emakumeok! **34**
Hitzaldia eta elkarrizketa Isabel Mellenekin **35**
Zinema feminista eta kulturartekoa: Qué buena broma, Bromelia **36**
Tailerrak: Zoru pelbikoa lantzen eta zerbait gehiago... **37**
Bakarrizketa: Magma Mia **38**
Zinema feminista eta kulturartekoa: Brecha en el silencio **39**
Dokumentala+ Bideoforuma: Florecerás, Nicaragua **40**
Sobre la tierra, bajo la sombra. Emakumeak lurraldean, kontakizunak eta islak **41**
Tailerra: La centralidad del empleo en los procesos de empoderamiento **42**
Tailerra: Autocuidados con perspectiva feminista **43**
Tailer praktikoa eta bizipenezkoa: Bakardadetik elkar topo egitera **44**
Tailerra: Autodefentsa feminista **45**
Euskal Herriko sorgin ehizari buruzko jardunaldiak **46**
Euskal Herriko sorgin ehizari buruzko jardunaldiak **47**
Euskal Herriko sorgin ehizari buruzko jardunaldiak **48**
Tailer praktikoa eta bizipenezkoa: Generoa eta osasun mentala **49**
Escape rooma: Laborategia **50**
Escape rooma: Ahalduntze sexuala **51**
Ipuin antzeztuak: Cuentos para desterrar a Barba Azul **52**
Kontzertu didaktikoa: Emakume abeslariak **53**
Antzerkia: RedNudes **54**
Afrikaldia, 2025eko Afrikako zinemaren euskal jaialdia: Waiting for men **55**
Afrikaldia, 2025eko Afrikako zinemaren euskal jaialdia: Price of love **56**
Landa-mekanika tailerrak: Ekin diezaiogun erremintekin **57**
Berdintasunaren aldeko Arabako Lautadako elkarteen lana **58**


ELBURGO - BURGELU
BARRUNDIA
SAN MILLÁN - DONEMILIAGA
ASPARRENA
ZALDUONDO
SALVATIERRA - AGURAIN
ALEGRÍA - DULANTZI
IRURAIZ - GAUNA


AIARA
GORBEIALDEA
ARABAKO LAUTADA
VITORIA-GASTEIZ
AÑANA
TREBIÑU
ARABAKO MENDIALDEA
ARABAKO ERRIOXA

# Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua

Lautadako Kuadrilla osatzen dugun 8 udalek eskualdeko emakumeen berdintasunerako eta ahalduntzerako eskolako egitaraua aurkezten dizuegu

Ale honetan iraila, urria eta azarorako antolatutako jarduera, proiektu eta ekintza guztien informazioa aurkituko duzue bai eta urtean zehar era iraunkorrean antolatuta dauden jarduerak ere. Eskuliburu honek jasotzen dituen proposamenak, urte osoan zehar, Kuadrillak berak, berau osatzen duten 8 Udalek edota eskualdeko herri mugimenduek antolatzen duten egitarauaren zati bat besterik ez dira. Horregatik, liburuxka hau kontsultatzeaz gain, udalen webguneak, hamabostean behin Lautada Gozatu-k antolatutako egitaraua eta LAIAren hileroko buletinari begiratu bat ematera animatzen zaituztegu eta, noski, ez ahaztu gure eskualdeko mugimendu feministen eta LGTBIQ+ mugimenduaren sareak kontsultatzea.

Azken urte hauetan, legedia aldatzen ari da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, eta, batez ere, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eta LGTBQ+ kolektiboaren eskubideen prebentzioa, arreta eta erreparazioa hobetzeari dagokionez. Paradigma aldaketa eman da legedian, baina, tamalez, horrek ez du esan nahi jendartearen pentsamoldea harekin batera ere aldatzen denik

Erronka horri era indibidual zein kolektiboan egin behar diogu aurre, bai jendarte osoan, bai administrazio publikoetan. Horretarako, oso garrantzitsua da formakuntzarako guneak izatea, hausnartzeko, iritzia emateko eta pertsona desberdinen artean partekatutako erabakiak hartzeko. Hori da Arabako Lautadako Kuadrillaren, bere Berdintasun Zerbitzuaren eta gainerako zerbitzuen konpromisoa, betiere gizarte-mugimenduekin etengabeko elkarrizketa eta koordinazioa bermatuz.

Datozen hileotan, Kuadrillak emakumeen eta LGTBIQA+ kolektiboaren aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko, arretarako eta erreparaziorako estrategia indartu eta hobetu nahi du, hainbat ekimen abian jarriz, besteak beste II.Protokoloa berritzea eta indarkeria matxistaren koordinazio, prebentzio, arreta eta erreparaziorako erreferentzia-esparru berri bat lantzea, bai eta honako ekimen hauek ere:

- Indarkeria matxistaren biktimei eskainitako arreta hobetzeko, erakundeen arteko II. jarduera- eta koordinazio-protokoloaren ebaluazioa; eta erakundeen arteko III. jarduera- eta koordinazio-protokoloa modu parte-hartzailean egitea, batik bat, indarkeria matxistaren biktimei arreta, zein erreparazioa emateko eta indarkeria matxistaren prebentzioa hobetzeko.
- Sexualitateari buruzko informazio gunearekin jarraitzen dugu. Lautadako herritar orori zuzenduta dago; horretarako, Agurainen, Alegría-Dulantzin eta Araian herritarrei aurrez aurre emango zaie arreta, horrez gain, honako helbidea ere erabili ahalko da: sexaguzulautada@gmail.com
- Indarkeria matxistaren biktimei eta bertatik bizirik ateratakoei laguntzeko programari jarraipena emango zaio, Kuadrillako emakume guztiei irekita dago.
- Patriarkatuak gizonengan duen eraginari buruz hausnartzeko gizon taldea, hamabostean behin Barrundian biltzen da.
- Indarkeria matxistaren biktimak prebenitzeko, koordinatzeko, artatzeko eta erreparazioa eskaintzeko esparrua berritu nahian, mugimendu feministarekin, emakumeen elkarteekin, LGTBIQ+ kolektiboekin eta beste gizarte-eragile batzuekin komunikazio-bideak indartzea.

# Erakundeen arteko koordinazio guneak

- **Erakundeen arteko koordinazio teknikorako guneak:**
  - ESKUALDEKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO II. PROTOKOLOA KOORDINATZEKO MAHAI TEKNIKOA: Arabako Lautadan emakumeen aurkako genero-indarkeriaren arreta eta prebentzioa hobetzeko erakundeen arteko koordinazioa du helburu.
  - BERDINSAREA-EUDEL: Sarearen helburua ondorengoa da: berdintasunaren alde eta emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria matxistaren aurka tokiko gobernuek kudeatutako programak eta zerbitzuak bultzatzea, indartzea, koordinatzea eta ebaluatzea
  - LURRALDEKO BERDINTASUN TEKNIKARIEN SAREA eta AFA
- **Koordinazio politikorako gunea:** Lautadan emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria matxistari aurrea hartzeko eta berdintasun-politiken jarraipena egiteko eta politika horiek bultzatzeko mahai politikoa.
- **Berdintasun-kontseilua:** Kontseilu sektoriala da, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean eta Berdintasunerako 4/2005 Legean aurreikusita dago. Antolatutako emakumeen mugimenduaren eta erakundearen arteko elkarrizketa-gunea izan nahi du. Kuadrillan lan egiten duten emakume-elkarteek eta norbanako gisa parte hartzen duten emakumeek osatzen dute. Kontseiluaren helburua emakumeen eta erakundearen arteko komunikazioa bultzatzea da, demokrazia parte-hartzailean sakontzeko. Horretarako, emakumeen mugimenduak Arabako Lautadan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan bultzatzen diren politika publikoen diseinuari, ezarpenari eta ebaluazioari buruz egiten dituen ekarpenak bilduko ditu. Bilerak egiten dira, eta horietan arloaren jardueren bilakaerari jarraipena egin eta informazioa eskaintzen da, etorkizuneko ekintzak adosten dira eta lehentasunak ezartzen dira.







**Arabako Lautadako Berdintasunerako Kontseilua**

**Consejo para la igualdad de la Llanada Alavesa**

BELDUR BARIK

# ERASO MATXISTARIK GABEKO JAI ASKEAK




# POR UNAS FIESTAS LIBRES DE AGRESIONES MACHISTAS

araba álava
foru aldundia diputación foral

Laia

Añanako Kuadrilla
Cuadrilla de Añana

Gorbeialdeko Kuadrilla
Cuadrilla de Gorbeialdea

Arabako Mendialdeko Kuadrilla
Cuadrilla Montaña Alavesa

CUADRILLA DE LAGUARDIA RIOJA ALAVESA
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA
CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA

AIARAKO KUADRILLA
CUADRILLA DE AYALA

AYUNTAMIENTO DE CONDADO DE TREVIÑO
TREBIñUKO KONDERRIKO UDALA

# Araba LGTBIQ+fobiaren kontra saretzen

Lumagorri elkarteak Araban duen presentzia sendotu du, sexu-orientazio, identitate edo genero-adierazpenagatiko diskriminazioa eta indarkeria errotik kentzeko helburuarekin, LGTBIQ+ pertsonengan ahalduntze feminista sustatuz. Ikusguneen bidez, jaietan eta aisialdiko jardueretan informazioa emateko guneak, laguntza, entzutea eta baliabideak eskaini zaizkie eraso LGTBI+fobikoen biktimei, lurraldean errealitate hori ikusarazten lagunduz. Aurrerapenak aurrerapen, diskriminazioa, ikusezintasuna edo gorroto delituak bezalako erronkek bere horretan diraute. Lumagorrik, Arabako herrietan pertsona erreferenteen sarea sortzeko apustua egin du, eta, hori lortzeko, indarkeriarik gabeko espazio seguruak sustatzen dira. Horretarako, erakundeen eta komunitatearen babesa giltzarria izan da.

**Arabako Foru Aldundiaren, Jai batzordeen, udalen, administrazio batzordeen, kolektiboen eta Berdintasun teknikarien konpromisoa ezinbestekoa izan da lan honen garapen onerako.**

Egin dezagun Araba LGTBI+fobiarik gabeko lurraldea.





**Emakume gehiagorekin**
gure Kontzejuak irabazle

**Con más mujeres**
nuestros Concejos ganan

# Arabako kontzejuetan emakume gehiago egotearen alde!

Kontzejuak dira Arabako herrietako gure elkarbizitzaren funtsa. Horiek dira demokraziarako modurik hurbilena eta benetakoena, non komunitateak bere patua erabaki eta eraikitzen duen. **Aurtengo azaroan, gure kontzejuetako batzar administratiboetarako hauteskundeak izango dira,** herrietako bizitzan gure parte-hartzea eta ahotsa indartzeko aukera paregabea.

Kontzejuak autogobernurako eta zuzeneko demokraziarako tresnak dira, baita gure egunerokoan eragina duten gaiei buruzko erabakiguneak ere. Horietan parte hartzeak esan nahi du hitza izatea eta gure ingurunearen, gure tradizioen eta gure etorkizunaren garapenean eragin ahal izatea.

Kontzejuetan erabakiak asanbladetan eta batzarretan aktiboki parte hartzen dutenek hartzen dituzte. Horregatik, funtsezkoa da emakumeak inplikatzea, beren iritziak eta proposamenak emanez. Batzarretan eta batzarretako karguetan egoteak demokrazia aberasteaz gain, erabakiek komunitate osoaren aniztasuna eta beharrak islatzea bermatzen du.

**Parte hartu eta egin Arabako emakumeen ahotsa ozen entzun dadin gure herrietan!**

Laia araba álava foru aldundia diputación foral






# Gaztelaniaren eta euskararen erabilera inklusiborako gida

## Hizkuntzak axola duelako

"Gaztelaniaren eta euskararen erabilera inklusiborako gida" aurkezten dizuegu, **Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Sailaren ekimena.** Zorroztasunez eta sentsibilitatez egindako dokumentua da, eta tresna zehatzak proposatzen ditu modu inklusiboagoan komunikatzeko. Lan honek genero-ikuspegia txertatzeaz gain, begirada zabaltzen du desberdintasuna sortzen duten beste dimentsio batzuk kontuan hartzeko, hala nola aniztasun sexuala, funtzionala eta arraza-aniztasuna, besteak beste.

Gidak premisa argia du abiapuntu: hizkuntzak diskriminazioak erreproduzitu ditzakeen bezala, inklusioa, berdintasuna eta justizia eraikitzeko tresna indartsua ere izan daiteke. Pertsona guztiak ikusarazi eta aintzat hartuko dituen komunikazioaren aldeko apustua egiten dugu, eta gida hau funtsezko urratsa da bide horretan.

**June Fernández** kazetari eta aktibista transfeministak garatu du baliabide baliotsu hau. Gainera, bera izango da kuadrilla guztietan zehar ibiliko dena, batzuetan politikariei eta teknikariei eta beste batzuetan herritarrei zuzendutako **prestakuntzak** emanez. Saio elebidun horiei esker, gidako edukiak zuzenean ezagutu ahal izango dira -komunak nahiz hizkuntza bakoitzaren berariazkoak -, eta elkarrekin ikasiko dugu inor kanpoan uzten ez duen ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzen.

Gida esteka honetan kontsulta dezakezu:
Guía para un uso inclusivo del castellano (PDF)

https://laia.araba.eus/documents/6816851/7431805/Euskararen+erabilera+inklusiborako+jarraibideak.pdf




INFORMAZIOA HEMEN:

# Bizilagunak 2025

Azaroaren 16an, igandea, Arabako hainbat etxe eta txokok bat egingo dute Bizilagunak ekimenarekin. Euskadi osoan garatzen da ekimen hori, eta kultur jatorri desberdinetako bizilagunak mahai baten inguruan biltzea du helburu, kulturen arteko bizikidetzaren aldeko zurrumurru arrazista eta xenofoboak zalantzan jartzeko.

Izan hemengoa edo hangoa, zure bikotekidearekin, Kuadrillarekin, lagunekin, senideekin... Hesiak bota eta errealitate berriak esploratzeko gogoa baduzu, ANIMATU ETA PARTE HARTU!

**ANTOLATZAILEAK:**

araba álava foru aldundia diputación foral

Entretanto Entretente — Bitartean Jolasean

MIXTURA — ARABA: ELKARBIZITZA ETA KULTUR ANIZTASUNA / ÁLAVA: CONVIVENCIA Y DIVERSIDAD CULTURAL

( zehar ) errefuxiatuekin

**LAGUNTZAILEAK:**

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarea | Red Vasca antirumores

SOS Racismo Arrazakeria

**Arabako Udalak eta Kuadrillak**

ZALDUONDO



Arabako Lautadako Berdintasunerako Kontseilua

Consejo para la igualdad de la Llanada Alavesa

# Eskualdeko Topaketa: Zurekin egingo dugu

Aurten ere, emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen aurkako indarkeria matxista desagerrarazteko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko, honako topagunean parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Oraingoan, 2018az geroztik Kuadrillan indarrean dagoen *Protokoloa* ebaluatu nahi dugu, batik bat, *indarkeria matxistaren biktimentzako arreta hobetzeko bidean, erakundeen arteko jarduera eta koordinazioa lantzen jarraitzeko*, baina baita orain arte egindakoaz hausnartzeko, nola hobetu ikusteko eta epe labur, nahiz ertaineko erronkak zehazteko ere.

Indarkeria matxistaren biktimak, mugimendu feminista, mugimendu sozialak, administrazioak eta dispositibo soziosanitarioak, judizialak, polizialak eta hezitzaileak aintzat hartuko dituen Protokolo berria behar dugu.

Biktimenganako arreta hobetuko duen protokoloa nahi dugu, indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzeko eta prebenitzeko, koordinazio handiagoarekin eta erreparazioa, zein errepikatuko ez delako bermea bilatuko duena.

Hirugarren protokolo horretan, azken urteotan gertatutako lege-aldaketak sartzeaz gain, beharrezkoa da biktimek beren bizi-ibilbideetan parte hartzea, erakunde publikoek erantzun eraginkorragoa emateko gaitasuna izatea eta tokian tokiko gizarteak topaguneak eta zaintza-guneak sortzen laguntzea, batik bat, indarkeria matxistaren biktima askok, hau da, emakumeek, neskek, haurrek eta gazteek herriak utz ez ditzaten eta lekutik deserrotu ez daitezen.

Aldaketa ez da posible izango indarkeria matxistaren gaitza desagerrarazi nahi dugun guztion parte-hartzerik gabe, antolatuak izan zein ez. Horregatik, zure parte-hartzea ezinbestekoa dela uste dugu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Sortzen Aholkularitza,** indarkeria matxistaren aurkako analisian eta jardunean eta emakumeen ahalduntzea bultzatzen espezializatua |
| **Datak eta orduak:** | **2025eko urriak 18**<br>Larunbata, 11:00-14:00 |
| **Programa:** | **11:00** Ongietorri instituzionala eta jardunaldiaren aurkezpena<br>**11:15** Testuinguruaren aurkezpena: Indarkeria matxista eta lege-aldaketak testuinguru soziopolitikoan<br>**11:45** Motibazioa, itxaropenak eta taldeen aurkezpena<br>**12:00** Talde-lana II. Protokoloa ebaluatzeko<br>**12:40** Atsedenaldia<br>**13:00** Proposatutako taldeen lana, III. Protokoloan sartzeko<br>**13:40** Taldeen ekarpenen aurkezpena<br>**14:00** Itxiera |
| **Tokia:** | Lazarraga jauregia. Zalduondo |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Kontseilua<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Zalduondoko Udala<br>EMAKUNDE<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Haurtzaindegi zerbitzua eta doako garraio zerbitzua Lautadako herrietatik, aldez aurretik eskatuta<br>Izen emateak: Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Aisialdi- eta jai-guneetako protokoloak

## Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko guneak jaietan

Aguraingo jaietan, urrian, martxan jarriko dira aisialdi- eta jai-guneetan indarkeria matxistaren aurkako protokoloak, indarkeria matxistaren biktimak izan daitezkeenei laguntzeko eta arreta emateko.

Era berean, Aguraingo eta Lautadako herrietako jaietan, emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko material ezberdina banatuko da. Banaketan, sexu eraso baten lekuko edota biktima izanez gero, zer egin behar den adieraziko da eta erabili beharreko telefonoak emango dira. Honako informazioa, halaber, txosnaguneetan eta aisialdi-guneetan ere aurkituko duzue.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Aguraingo Mugimendu Feminista**<br>**Aguraingo Udala** |
| **Datak eta orduak:** | **2025eko urriak 3, jai egun guztietan zehar** |
| **Tokia:** | Aguraingo jai- eta aisialdi-guneak |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Elebiduna |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Aguraingo Mugimendu Feminista<br>Jai- eta aisialdi-guneetan lan egiten duten pertsonak eta erakundeak<br>Aguraingo Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| **Informazio + inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Ikerketa: Iruraiz-Gaunako emakumeen memoria. Bidaia ondarean zehar

Badira bideak zabaltzen dituzten lanak. Honako liburua horietakoa da. Lehendabizikoz, Iruraiz-Gaunan, gure ondareari begirada ezberdinarekin begiratuko diogu; zalantzan jartzen duen, bilatzen duen eta berreskuratzen duen begiradarekin. Bidea Isabel Mellen historialari eta ikertzailearen eskutik egingo dugu. Udalak Melleni eskerrak eman nahi dizkio zinez bere sentsibilitate, konpromiso, zorroztasun eta isilik geratutako gure historiaren zati bat itzultzeko gaitasunagatik.

Elizak, garbitokiak, iturriak eta abarrak, harriak, egiturak edota eguneroko paisaiak baino askoz gehiago dira; bizitzen, lanen, zaintzen lekukoak dira. Baita gabeziena ere. Mendeetan zehar, emakumeak izan dira gure komunitateen eragile ikusezina. Espazio hauek habitatu eta eutsi dituzte, baita haiei bizitza eman ere, baina oso gutxitan izan dira historian funtsezko osagai gisa errekonozituak.

**Lan hau irakurri nahi baduzu, beheko estekan deskarga dezakezu.**

| | |
|---|---|
| **Idazlea:** | **Isabel Mellén,** filosofoa, artearen historialaria eta idazlea |
| **Izenburua:** | Emakumeen memoria Iruraiz-Gaunako ondarearen bitartez |
| **Generoa:** | Didaktika-Saiakera (Ikerketa) |
| **Norentzat:** | Gazteentzat eta helduentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania -euskara |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Iruraiz-Gaunako Udala, Arabako Lautadako Koadrilla, Arabako Foru Aldundia, Vital Fundazioa |
| **Deskarga linka:** | **Gaztelania:** https://iruraiz-gauna.eus/es/libro-memoria-mujeres-iruraiz-gauna<br>**Euskara:** https://iruraiz-gauna.eus/eu/iruraiz-gaunako-emakumeen-memoria-liburua |



# Irakurketa klub feminista gaztelaniaz

## Con Tintas Feministas

Irakurketa klub feminista elkartzeko, hausnartzeko eta ezatabaidatzeko espazioa da, non adin, formakuntza, maila, lanbide, eta bizimodu eta abar ezberdinetako emakumeak batzen garen feminismoaz hitz egiteko.

Eleberriak, saiakerak, iritzi artikuluak, poesia eta abar irakurriko dugu, eta liburuetako edukiari buruzko norberaren iritzia besteenekin osatuko dugu.

Hilabetean behin bilduko gara irakurketak partekatzeko, eta, hala erabakiz gero, inguruko herrietan txandaka batu gaitezke. Agurainen hasiko gara, eta, klubean izena ematen duzuen emakumeen arabera, Kuadrillako herrietan egingo ditugu hurrengo saioak. Gure Kuadrilla hobeto ezagutzeko eta elkarrengana gerturatzeko aukera ere bada.

Eta, are gehiago, ondo baino hobeto pasatzen dugu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Christina Werckmeister Lacarra,** Filologia Klasikoan lizentziatua eta Genero Berdintasunean masterra |
| **Datak eta orduak:** | Aurkezpena:<br>**2025eko urriak 20**<br>Astelehena, 18:00-20:00<br>**Hileko hirugarren astelehena ordutegi berean** |
| **Tokia:** | Aurkezpena Manu Yanke aretoan, Agurain<br>Lehenengo saiora joaten diren emakumeekin saioak non egingo diren erabakiko da |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Irakurketa klub feminista euskaraz

## Lerroetatik kanpo

Euskarazko literatura disfrutatu eta elkarbanatuko dugu, era berean, euskal feminismoaren historia, nahiz nazioartekoa ezagutuko dugu; izan ere, berdintasuna, ezagutza eta kulturen arteko elkarrizketak oinarri izanik, eleberriek, olerkiek, saiakerek, eleberri grafikoek, iritzi artikuluek eta abarrek inspirazioa eta pentsamendua piztuko dizkigute.

Espazioak esperientziak partekatzeko eta beste kulturen, nahiz bizi-esperientziei buruz ikasteko ere balioko digu.

Kluba ahalduntzeko eta norberak bere burua benetan aberasteko gunea da.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Rosario Schmidt Lizarde,** filologoa eta feminista |
| **Datak eta orduak:** | Aurkezpena:<br>**2025eko urriak 21**<br>Asteartea, 18:00-20:00<br>**Hileko hirugarren asteartea, ordu berean** |
| **Tokia:** | Aguraingo Lezao kirol-guneko bilera-gela |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Euskara |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina,<br>sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Arabako Lautadako Kuadrillako indarkeria matxistaren biktimei eta biziraun dutenei laguntzeko programa

## Ez gaude bakarrik, elkartzeko eta ahalduntzeko espazioa

Harrera eta laguntza emozionala eskaintzeko gune bat da, kultura patriarkaletik eratorritako indarkeriaren gertaera traumatikoei buruzko kontzientzia indibidual eta kolektiboa lantzeko.

Talde-dinamiketan aditua den hezitzaile batek eta psikologo batek gidatuko dute taldea. Edukiak eta prozesuak gidatzeaz gain, parte-hartzaileen arteko lotura sustatuko dute, bizipen eta emozio horiek beste leku batetik landu ahal izateko. Konfiantzatik, gu geu indartzeko eta ahalduntzeko espazio seguru batetik.

Gune honetan parte hartzeko ez da beharrezkoa indarkeria matxistagatik salaketa jarri izana, zure burua biktima gisa edo biziraule gisa aitortzea nahikoa da parte hartzeko.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Maria Gallo,** psikologoa eta **Ane García-Alzórriz,** gizarte-hezitzailea<br>**Norma Vázquez García,** Sortzen Aholkularitza |
| **Datak eta orduak:** | **2025eko iraila – 2026ko ekaina** |
| **Tokia:** | Arabako Lautadako Kuadrilla |
| **Norentzat:** | Arabako Lautadako Kuadrillako edo Arabako Lautadako indarkeria matxistaren biktimentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Arabako Lautadako Kuadrilla, eta hurrengo udalak: Agurain, Alegría-Dulantzi, Asparrena, Barrundia, Donemiliaga/San Millán, Burgelu/Elburgo, Iruraiz-Gauna eta Zalduondo |
| **Informazio + inskripzioak:** | Haurtzaindegi-zerbitzua, gutxienez 3 egun lehenago eskatuz gero<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

sexaguzu

Lautada sexualitate informazio gunea
Punto de información sobre sexualidad en la Llanada

# Sexualitateari buruzko informazio gunea genero-ikuspegitik

Pertsona guztien sexualitateak (pluralean) zaintzeak ondorengoa esan nahi du: nork bere burua ezagutzea, nork bere burua onartzea eta nork bere burua askatasunez eta errespetuz adieraztea sustatu behar dela, norbanakoaren ongizatean eta subjektu guztien bizikidetza sinergikoan lagun dadin, eremu intimo zein publikoetan. Argi dago sexualitateak artatzeko orduan arreta berezia gazteengan jarri behar dela– beren sexualitatearen eraikuntzan une garrantzitsuenetako bat bizitzen ari baitira – eta bereziki zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboei (dibertsitate funtzionala duten pertsonak, migratuak, buruko gaitzik dutenak...), jasan ditzaketen diskriminazioek eragin kaltegarria izango baitute beren sexualitatearen bizipenean. Sexualitateei arreta eskaintzeak eta, zehazki, sexu-aholkularitzak, sexu-eskubideak betetzea ahalbidetzen du, eta pertsonek ahalduntzea eta beren bizitzei buruz erabakitzea errazten du.

Sexualitateei arreta emateko programak aurrez-aurreko zerbitzua eskainiko du asteazkenero, 18:00etatik 19:30era Agurainen, Dulantzin edo Asparrenan, eta astelehenetan, berriz, sexaguzulautada@gmail.com helbide elektronikoaren bidez eta telefono zenbaki honen bidez: 673647600.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Emaize,** zentro sexologikoa |
| **Datak eta orduak:** | **2025eko iraila – 2026ko ekaina**<br>Asteazkenero aurrez aurreko arreta Lautadan 18:00etatik 19: 30era<br>Astelehenero, telefono bidez eta posta elektronikoz arreta, 2025eko irailetik 2026ko ekainera |
| **Tokia:**<br>*Aurrez aurreko arreta:* | Aguraingo Lezao kiroldegiko bilera aretoa, Dulantziko kultur etxea; Araiako kultur etxea |
| *Mugikor eta mail bidezko arreta:* | sexaguzulautada@gmail.com<br>Sexaguzu Lautada zenbakia: 673 64 76 00 |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Elebiduna |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Honako udalak: Agurain, Alegría-Dulantzi, Asparrena, Barrundia, Donemiliaga/San Millán, Burgelu/Elburgo, Iruraiz-Gauna eta Zalduondo<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Aholkularitza zerbitzuaren informazio- eta harreman-telefonoa: 673 64 76 00<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

**Aurrez aurreko arretarako ordutegi eta tokiak:**

| AGURAIN: | DULANTZI: | ARAIA: |
|---|---|---|
| Irailak 17 | Urriak 8 | Irailak 24 |
| Urriak 1, 15 eta 29 | Azaroak 5 | Urriak 22 |
| Azaroak 12 eta 26 | Abenduak 3 | Azaroak 19 |
| Abenduak 10 | Urtarrilak 14 | Abenduak 17 |
| Urtarrilak 7 eta 21 | Otsailak 11 | Urtarrilak: 28 |
| Otsailak 4 eta 18 | Martxoak 11 | Otsailak 25 |
| Martxoak 4 eta 18 | Apirilak 15 | Martxoak 25 |
| Apirilak 1 eta 22 | Maiatzak 20 | Maiatzak 6 |
| Maiatzak 13 eta 27 | Ekainak 17 | Ekainak 3 |
| Ekainak 10 | | |

**BARRUNDIA**



# Maskulinitate parekide berriak eraikitzeko programa

Ikasturtean zehar jarraipena duen Lautadako gizon-talde honen bitartez, matxismoaren dekonstrukzioan lan egin nahi dugu, sexu bereko eta beste sexuko pertsonen arteko harremanak ahalik eta parekideenak eta ahalik eta sexismo txikienarekin eraikitzea bilatu nahi dugu.

Helburu nagusia, patriarkatuaren eraginetik ahalik eta askeen, norberak bere buruarekin eta besteekin harremanak eraikitzea da. Formazioaren eta sentsibilizazioaren bidez, gizonok jasotako baldintzapen sexistei buelta emango zaie. Gure helburua maskulinitate patriarkal tradizionaletatik kanpo kokaturiko maskulinitateari heltzea da, eta ez boterearen gehiegikerian eta indarkerian oinarritutako maskulinitateari eustea; maitasunean, zaintzan, errespetuan eta lankidetzan oinarritutako maskulinitateari helduko diogu.

Saioek, batetik, alde teorikoa eta, bestetik, bizipenetan oinarritutako atala izango dute, non gizonak maskulinitateak berrikusteko beharraz sentsibiliza daitezkeen, baita maskulinitateek gugan, emakumeongan eta gizartean, oro har, eragiten duten kalteaz ere.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Xabier Molinero Martínez eta Alberto Relloso Pereda,**<br>Ongiz elkartea-Ezberdin zentroa |
| **Datak eta orduak:** | **2025eko irailak 8, urriak 2, urriak 23, azaroak 6 eta azaroak 20**<br>**2026ko urtarrilak 15 eta 29, otsailak 12 eta 26, martxoak 12 eta 26, apirilak 23, maiatzak 7 eta 21 eta ekainak 4 eta 18**<br>Osteguna, 18:00- 21:00 |
| **Tokia:** | Larrarte de Heredia Zentro soziokulturala, Barrundia |
| **Norentzat:** | 16 urtetik gorako gizonentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Arabako Foru Aldundia<br>Herediako Kontzejua eta Barrundiako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| **Informazio + inskripzioak:** | Haurtzaindegi-zerbitzua, gutxienez 3 egun lehenago eskatuz gero<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina,<br>sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Adineko pertsonentzako Berdintasun Programa

## Ederki zahartzea genero ikuspegiarekin

"Ederki zahartzea genero-ikuspegiarekin", 65 urtetik gorako emakumeek eta gizonek topo egiteko eta hausnartzeko taldea abian jartzeko gunea da. Hazkunde pertsonalari ekinez, gure bizi-kalitatea eta genero-harremanak hobetzea da helburua, betiere estereotipoak hautsiz; *"izan ere, inoiz ez da berandu gure pentsamoldeak eta jokaerak hobetzeko, baldin eta berdintasuna eta giza eskubideekiko errespetua badira".*

Helburuetako bat adinekoen bizi-kalitatea hobetzea da, haien hazkunde pertsonala eta ongizatea sustatuz, baina, baita genero-rolei eta nork bere denboraka izateko eskubideari buruzko hausnarketa kritikoa sustatzea ere. Gainera, berdintasunari eta indarkeria matxistaren prebentzioari buruzko tresnak ere eskainiko dira.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Kontxi López Soria,** gizarte-langilea, sexologoa eta berrelkartzeko terapian trebatutako profesionala, generoan aditua |
| **Datak eta orduak:** | **2025eko irailak 25, urriak 23, azaroak 20 eta abenduak 11**<br>**2026ko urtarrilak 28, otsailak 25, martxoak 25, apirilak 22 eta maiatzak 20**<br>Asteazkena, 11:30-13:00 |
| **Tokia:** | Eguneko Arretarako Landa Zentroa CRAD, Asparrena |
| **Norentzat:** | CRADen erabiltzaileentzat eta 65 urtetik gorako pertsonentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Asparrenako Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Asparrenako Udala<br>945 30 40 06<br>www.asparrena.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Gorputzetik sentsibilizatzeko eta ahalduntzeko programa: ¡Cuídame & cuídome!

Emakume zaintzaileek, etengabe besteen beharrei lehentasuna ematen dietenez, beren premietatik deskonektatu ohi dute. Ondorioz, desoreka horrek eragin nabarmena sortzen du beren gorputzetan, bai alderdi psikologikoan, bai emozionalean, baita fisikoan ere.

Gorputza, laguntza eta segurtasun espazioa izan beharko lukeena, neke eta tentsio iturri bilakatu ohi da. Horregatik, honako proiektuak ikuspegi berritzailea proposatzen du: ahalduntze-prozesuan, gorputza funtsezko aliatu gisa erabiltzea.

Honako tailerren bidez, bakarkako ikuspegia, zein kolektiboa landu nahi da, emakumeen historia eta indarra beren fisiologia esperimentatzeko, sentitzeko eta sakonki bizitzeko gaitasunean oinarritzen dela onartuz.

Norberak bere burua nola zaintzen duen eta kolektiboki nola zaintzen dugun landu nahi dugu; norberaren zaintzak zaintza partekatuan oinarri duela aintzat harturik, honakoa joan-etorriko bidea da. Hala eta guztiz ere, nahiz eta joan-etorriko bidea izan, bideak sororitatea indartzeko balioko digu, hori baita eraldatzeko eta elkarri laguntzeko gakoa.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Leticia Morales Rodrigo,** psikologoa, psikoterapeuta, gorputz-bideratzailea eta dantzaterapeuta |
| **Datak eta orduak:** | **2025ko irailak 9, urriak 14, azaroak 11 eta abenduak 9**<br>**2026ko urtarrilak 13, otsailak 10, martxoak 10, apirilak 14, maiatzak 12 eta ekainak 9**<br>Hileko bigarren astearteak, 17:00-19:00 |
| **Tokia:** | Barrundiako udaletxea |
| **Norentzat:** | 16 urtetik gorako emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | “Ez Barrundian ez Inon, eraso matxistarik ez” Elkartea<br>Barrundiako Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Haurtzaindegi-zerbitzua, gutxienez 3 egun lehenago eskatuz gero<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

BARRUNDIA



# Ahizpatasuna eta ahalduntzea sustatzeko eta indarkeria matxisten prebentziorako programa

Barrundian urteak daramatzagu Barrundiako Emakume taldea indartzeko prozesuan. Barrundiako Udalaren babesa duen prozesua da eta epe labur eta ertainean, ahalduntze-prozesuen alde egin, indarkeria matxisten aurkako prebentzioa indartu eta indarkeria horiek tokiko eragileekin koordinatzen laguntzen du.

Urte honetatik aurrera, taldea bere burua dinamizatzen eta bere kasa funtzionatzen hasiko da. Hala eta guztiz ere, Udalak prozesua babesten jarraituko du, horretarako, lokala eta haurtzaindegi zerbitzua eskainiko ditu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Susana Teruelo Pérez,** Ongiz elkartea-Ezberdin zentroa<br>Prozesuan parte hartu duten Barrundiako Emakumeen Elkartea |
| **Datak eta orduak:** | **2025ko irailak 27, urriak 13 eta 27, eta azaroak 10 eta 24**<br>**2026ko urtarrilak 19, otsailak 2 eta 16, martxoak 2 eta 16, apirilak 13, maiatzak 11 eta 25; eta ekainak 8 eta 22**<br>Astelehena, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Barrundiako udaletxea |
| **Norentzat:** | Barrundiako Emakume taldearentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Barrundiako Emakume taldea<br>Barrundiako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Haurtzaindegi-zerbitzua, gutxienez 3 egun lehenago eskatuz gero<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# URBIDE programa: Zeharkaldi sortzailea ikuspegi feministatik

## Emakumeentzako sormenezko topaleku bat

Artearen bidez zure dohain eta talentuak zein diren jakin nahi al duzu?

Zeharkaldi hau, beren sormen-ahalmena piztu nahi duten emakumeentzako gozamenerako-gune gisa planteatzen da. Hamabostean behin sormenari eskainitako jarduera da eta, zeharka, gure sormen-gaitasunean eragina duten genero-baldintzatzaileak berrikusiko ditugu. Hainbat hizkuntza artistikoren bidez, eskura dugun sortzeko gaitasunera hurbilduko gara, baldintzatzen gaituzten sinesmen mugatzaileak desblokeatuko ditugu, eta horrek gure eguneroko bizitzan duen eraginari buruz hausnartuko dugu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Yanela Murua García de Albeniz,** psikoterapeuta, logopeda, generoan trebatua Bartzelonako Unibertsitateko Emakumeen Ikerketa Zentroan (Duoda) eta Salamancako Unibertsitatean |
| **Datak eta orduak:** | **2025ko urriak 9 eta 26; azaroak 6 eta 20; eta abenduak 4 eta 18**<br>**2026ko urtarrilak 8 eta 22; martxoak 12 eta 26; apirilak 9 eta 23; eta maiatzak 14 eta 28**<br>Osteguna, 18:30-20:30 |
| **Tokia:** | San Millán/Donemiliagako Udalaren funtzio anitzeko eranskina |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | San Millán/Donemiliagako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| **Izen ematea:** | San Millán/Donemiliagako Udala: 945 30 04 72 |
| **Informazio + Inskripzioak:** | San Millán/Donemiliagako Udala<br>945 30 04 72<br>https://www.donemiliaga.eus<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Tailerra: Antzerki feminista

Talde izaera landu nahi duten emakumeei zuzendua, antzerki-jolasetik abiatuta eta umore feministaren ikuspegia jorratuz. Tailer honetan, makina sortzaileen prestakuntzan trebatuko gara, gure lokomozio-aparatuari txinpartak atera, izu-eszenikoaren sentsoreak koipezteko eta erregistroa aldatzeko palanka aktibatzeko. Inprobisazioaren izenburua: Emakume honek burua galdu du…! Estiloa: Komedia. Adi, prest, aurrera!

Tailer honek lotsa gainditzen eta erridikuluari beldurra galtzen lagunduko digu; baita autonomia eta autoestimua indartzen ere, gure buruaren irudi positiboa eraikiz. Tailer hauen bidez, emozioen eraldaketarako ahalmena aktibatuko dugu, eta feminismoari eta genero-kontzientziari buruzko oinarrizko ezagutzak eskuratuko ditugu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Belén Nevado Méndez,** aktorea, “Zapalduaren Antzerkian” aditua, feminista |
| **Datak eta ordutegia:** | **2025ko urriak 2, 9, 16, 23 eta 30; azaroak 6, 13, 20 eta 27 eta abenduak 4, 11 eta 18**<br>**2026ko urtarrilak 15, 22 eta 29; otsailak 5, 12, 19 eta 26; martxoak 5, 12, 19 eta 26; apirilak 16, 23 eta 30; eta maiatzak 7, 14, 21 eta 28**<br>Osteguna, 18:30-20:30 |
| **Tokia:** | Araiako Kontzejuko gela zaharra |
| **Norentzat:** | 16 urtetik gorako emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Izen ematea:** | Asparrenako Udala: 945 30 40 06 |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Asparrenako Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

BARRUNDIA



# Sexu-heziketa lantzeko programa integrala

## Barrundiako Eskola Txikia

Programa hau, LH 2. eta 3. zikloetan sexu-hezkuntza lantzeko programa integrala da, eta prestakuntza eskaintzen du bai familiekin, bai irakasleekin batera egiteko. Sexualitatea gizakiari atxikirik dago. Sexuazio-prozesua, pertsona sexuduna eraikitzeari dagokionez, dinamikoa eta aldakorra da, eta garrantzi handia du fenomeno biofisiologikoetan, sozialetan, kulturaletan eta hezkuntzan. Prozesu bakoitza pertsonala eta errepikaezina da, eta, beraz, munduan sexuala izateko pertsona adina modu daude. Biologia, kultura eta hezkuntza modu askotara uztartuko dira, gorputzak, identitateak, nahiak eta adierazpenak sortuz. Izaki sexudun bakoitzak izateko, jarduteko eta sentitzeko berezko modua izango du; agertoki zabal horretan, pertsona guztiak sartzen gara, gure ezaugarri femeninoak eta maskulinoak, gizartearen araudira egokitu zein ez, genero rolekin identifikatu zein ez. Hala ere, gizarte bakoitzaren sinesmenek eta ohiturek, izateko eta adierazteko (arautautako) moduek eta "egiten duenak" erabaki dezakete zer den egiten ez duguna, eta, horrek, eragin berezia izango du gure bizipenean.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Emaize,** zentro sexologikoa |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko urria, azaroa eta abendua**<br>Eskola orduak |
| **Tokia:** | Eskola Txikia. Barrundia |
| **Norentzat:** | Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko ikasleentzat, eskolako familientzat eta irakasleentzat |
| **Hizkuntza:** | Ikasle eta irakasleak: Euskara<br>Familiak: Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Barrundiako Eskola Txikia, Barrundiako Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Barrundiako Eskola Txikia: 600 90 35 22<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Berdintasunaren aldeko ipuin laburren X. lehiaketa

Dagoeneko 10 urte daramatzagu lehiaketa hau antolatzen, eta udalerriko zein udalerritik kanpoko hainbat pertsonak parte hartu izan dute. Lehiaketa honek bi helburu ditu: alde batetik, literatura sorkuntza, sormena eta irudimena sustatzea, eta, bestetik, herritarrak sentsibilizatzea emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren eta LGTBI kolektiboaren aldarrikapenen alde.

Baloratu egingo ditugu honako gai hauei buruzko kontakizunak: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, estereotiporik gabea eta rol tradizionaletatik aldentzen dena; genero-identitateei eta norberaren bizitzari eta gorputzari buruz erabakitzeko askatasuna; zaintzak bizitzaren erdigunean jartzearen garrantzia eta gizonen inplikazioa; eta klase sozial, adin, baldintza eta kultura guztietako emakumeen beharrezko ahalduntzea. Ipuin irabazleek saria jasoko dute, eta jendaurrean irakurriko dira azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz.

Hiru kategoria: Haurrak/gazteak eta helduak, euskaraz edo gaztelaniaz

Animatu parte hartzera eta zure aletxoa jartzera genero-berdintasuna lortzeko bidean.

| | |
|---|---|
| **Datak eta orduak:** | **2025eko irailetik azarora**<br>Lanak aurkezteko muga: **2025eko urriaren 31**<br>Irabazleen kontakizunen irakurketa eta sari banaketa: **2025eko azaroak 21,** ostirala, 18:15ean, Aguraingo Udaletxean |
| **Tokia:** | Agurain |
| **Norentzat:** | 7 urtetik gorako herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Elebiduna |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Aguraingo Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| **Informazio + inskripzioak** | Aguraingo Udala<br>945 30 40 06<br>www.agurain.eus<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Tailerrak: Autodefentsa feminista eta maskulinitate berriak





**Autodefentsa feministari dagokionez**

Emakumeok milaka eraso jasaten ditugu egunero, jendarte biolento, sexista eta patriarkal batean bizi garelako. Ordena sozialak indarkeria erabiltzen du emakumeak kontrolatzeko eta menderatzeko. Egoera honen aurrean, erasoak prebenitzeko daukagun tresnarik onenetako bat da autodefentsa.

**Maskulinitate berriei dagokienez**

Saio hauen helburua da nerabeek eta gazteek, bereziki mutilek, kontzientzia hartzea eta inplikatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka, eta gatazkak konpontzean indarkeriarik gabeko jarrerei balioa ematea.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Esther Monge,** Safo Eskola<br>**Aitor Amilivia** eta **Mikel Arakistain,** Ongiz elkartea-Ezberdin zentroa |
| **Data eta ordutegia:** | Lautada ikastola:<br>**2025eko irailak 25**<br>Osteguna, 9:45-14:15<br>Aniturri Institutua:<br>**2025eko irailak 29** eta **30 eta urriak 1 eta 2**<br>Astelehena, asteartea, asteazkena eta osteguna, 9:45-14:15 |
| **Tokia:** | Aniturri Institutua eta Lautada Ikastola |
| **Norentzat:** | Lautada Ikastolako eta Aniturrri Institutuko DBHko 4. mailako ikasleentzat |
| **Hizkuntza:** | Euskara |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Aguraingo Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla, Lautada Ikastola, Aniturri Institutua, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

Aniturri BHI Agurain

lautada ikastola

**IRURAIZ-GAUNA**



# Garbitzaileei omenaldia

Omenaldiaren helburua, garbitokiak erabili zituzten Arabako adineko emakumeei aitortza egitea da, beren lana eta ekarpen soziala nabarmenduz. Haien lana hobeto ulertzeko, funtsezkoa da garai hartako testuinguru historiko eta soziala ezagutzea, garbilekuak XIX. mende amaierako testuinguru sozio-historiko jakin batean sortu baitziren. Gune horiek garbiketa-ohiturak aldatu zituzten, gatazka moralak sortu zituzten eta emakumeen arteko elkartasuna sustatu zuten. Denboraren poderioz, garbilekuen eta haien erabiltzaileen hautemate soziala aldatu da, eta, horren ondorioz, beren lana eta garbitegiko lanbidea balioan jarri da, baita zaintza-lana ere. Jardueran Isabel Mellen filosofo, historialari eta genero ikuspegian oinarritutako historian adituaren parte-hartzea izango dugu. Antzerki saioa eskainiko da eta xaboia emango zaie tailerrean parte hartuko duten emakumeei eta omenduei.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **La jabonería de la Almendra** eta **Isabel Mellén** historialari ikertzaile espezializatua Arabako arte erromanikoan |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko irailak 25**<br>Osteguna, 16:30 |
| **Tokia:** | Arrietako garbitokia, Langarika |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Gure Soroa |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Gure Soroa: 672540945<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Hezkidetza jolasen XV. Jaialdia

Hezkidetza jokoen jaialdia jolasetik abiatuta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz familian hausnartzeko aukera bat da, bai haurrek, bai gazteek, baita helduek ikas dezaketen espazioak sortuz.

Ekintza honen oinarrizko xedea aisialdi ez-sexistarako gune bat sortzea da, non pertsona orok berdintasunez eta inolako diskriminazio sexistarik jasan gabe parte har dezakeen. Jolasen aurkezpenak, mailegu-ludoteka eta euskarazko eta gaztelaniazko jolasguneak egongo dira, eta haurrentzako jolasguneak ere prestatuko dira.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Hal taldea**, ekitaldi eta alternatiba ludikoak S.L.<br>**Alara,** berdintasunaren aldeko ihes-gela |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko irailak 27 eta 28**<br>Larunbata eta Igandea, 12:00-20:00 |
| **Tokia:** | Landederra Kiroldegia, Elburgo |
| **Norentzat:** | Familientzat |
| **Hizkuntza:** | Elebiduna |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | ARGIAko Emakume Taldea<br>Elburgoko Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Sarrera librea lekua bete arte<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina,<br>sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Arabako batukada feministen lehen topaketa

Musikaz, konexioz eta hausnarketaz beteriko asteburua. Arabako batukada feministetako emakumeentzako lehenengo topaketa izango da, eta, bertan, afrobrasildar perkusioaren indar eraldatzailea aztertuko dugu. Emakumeentzako espazio segurua eta sortzailea izango da, non musika elkarrekin hazteko tresna bihurtuko den.

**Dinamizatzailea:** **Ashabá,** hainbat esperientzia musikal, sozial eta politikotatik etorritako emakumez osatutako taldea da. Musikaren bidez, emakumeen eskubideekin eta ikusgarritasunarekin lotutako ekintzak babestea eta guztiontzako mundu bidezkoagoa eraikitzea du helburu

**Data eta ordutegia:** **2025eko irailak 27 eta 28**
Larunbata, 10:00-21:30
Igandea, 10:00-14:00

**Tokia:** Garaion Sorgingunea, Ozaeta

**Norentzat:** Emakumeentzat

**Hizkuntza:** Elebitan

**Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** Mendiandreak Elkarte Feminista
Arabako Foru Aldundia

**Informazio + Inskripzioak:**

Euskaraz izena emateko formularioa

Gaztelaniaz izena emateko formularioa

mendiandreak@gmail.com
Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua
945 30 12 00
arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus
eta LAUTADA GOZATU aldizkaria
Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina,
sare sozialak eta karteldegien bidez




# Zine-foruma:

## No apto para cobardes. 50 urteko 50 emakumeren dokumentala

50 urte inguruko 50 emakumek goitik behera zabaltzen dute beren izana Nuria Silván Miracle-ren “No apto para cobardes” filmean. Dokumental zintzoa, dibertigarria eta hunkigarria da. Horiek horrela, kontakizun ausart eta hunkigarri honetan, 50 emakumek, berrogeita hamar minutuan zehar, menopausiari, helduaroko sexu-harremanei, ahalmen galerari, bikote-bizitzari (edo bikoterik gabekoari), zahartzeko beldurrari, hiltzeko beldurrari eta bakardadeari buruz hitz egiten dute. Berrogeita hamar ikuspuntuk ehuntzen dute kontatua izan behar zuen istorioa, eta hausnartzera eta enpatia izatera bultzatzen dute hartzailea. Bizitzari buruz hitz egiten duen dokumentala da, efekturik eta intelektualtasunik gabekoa.

**Dinamizatzailea:** **Nuria Silván Miracle,** gidoilaria, errealizadorea eta zuzendaria

**Data eta ordutegia:** **2025eko urriak 2**<br>Osteguna, 18:00-20:00

**Tokia:** Zalduondoko Udaletxea<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia

**Norentzat:** Gazteentzat eta helduentzat

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** Zalduondoko Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia

**Informazio + Inskripzioak:** Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez






# Argazki erakusketa: Indarkeria matxista: Zutik emakumeok!

Argazki erakusketa honen helburu nagusia, munduan zehar indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen erresistentziak erakustea da. Hainbat elkartek, erakundek eta kolektibok eskainitako argazkiek osatzen dute bilduma, Ekuador Etxearen parte-hartze berezia ere egon da.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Basauriko Udaleko Berdintasun Zerbitzua** |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko urriaren 6tik abenduaren 31ra**<br>Bisitak: Lazarraga jauregian programatutako egunak<br>Igandeak, 11:30-13:30 |
| **Tokia:** | Lazarraga jauregia. Zalduondo |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Elebiduna |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Zalduondoko Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina,<br>sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Hitzaldia eta elkarrizketa Isabel Mellenekin

## Emakumeen arrastoa Lautadako eliza erromanikoetan

“Historia garaileek idazten dute” esaerak adierazten du iraganaren bertsio nagusia garaileena izan ohi dela, gizonezkoena gehienetan, eta, ondorioz, emakumeen ekarpenak ikusezin bihurtu izan dituzte. Hala eta guztiz ere, emakumeen papera ikertzean eta onartzean, XII. mendeko arkitekturan emakumeen nagusitasunaren kasuan bezala, historiari, arteari eta eguneroko bizitzari buruzko interpretazio berriak sortzen dira. Oraingoan, Isabel Mellenek XI. mendeko tenpluen eta eraikinen arkitekturan nagusitasuna izan zuten emakumeen rola azalduko digu. Begirada zabalago horretatik, haien kezkak, nahiak, genero rolak eta asmo politikoak ezagutu ahalko ditugu. Ezagutzen dugun -eta elkarri kontatzen diogun- kontakizunak, herritar gisa ditugun nahiak eraldatzeko ahalmena du. Hitzaldiaren ostean, gaiaren inguruan eztabaidatu ahalko dugu, baita geure buruari egin diezazkiokegun galderei erantzuna eman ere.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Isabel Mellén,** filosofoa, artearen historialaria eta idazlea |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko urriak 9**<br>Osteguna, 17:00– 19:00 |
| **Tokia:** | Areto Nagusia, Elburgo |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Gure Soroa |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Gure Soroa: 672540945<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Zinema feminista eta kulturartekoa:

## Qué buena broma, Bromelia

Bromeliak, amaren eztei-dendan arreoak josten ari dela, bizitza osorako amodio batekin egiten du amets. Azkenean, Pedro iristen denean, hainbeste irrikatzen duen maitasunak esperientzia liluragarriak eta ustekabekoak sortuko ditu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Lady Viviana Toro**, Wayra Emakume Elkartea |
| **Data eta ordutegia:** | **202eko urriak 10**<br>Ostirala, 18:30 |
| **Tokia:** | Micaela Portilla Kultur Etxea, Alegría-Dulantzi |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Wayra Emakume Elkartea, Arabako Foru Aldundia, Emakunde, Alegría-Dulantziko Udala<br>Juliana Cuervos aktore venezuelarraren laguntza bereziarekin |
| **Informazio + Inskripzioak:** | asociaciondemujereswayra@gmail.com<br>Telefono zenbakia: 603706562 (whatssap)<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



**Sallurtegiko Emakumeen Elkartea**
**Asociación de Mujeres de Sallurtegi**

# Tailerrak: Zoru pelbikoa lantzen eta zerbait gehiago...

Ikastaro praktiko honetan dinamizatzaileak zoru pelbikoa indartzeko ariketak proposatuko ditu. Gainera, zoru pelbikoa indartsu mantentzearen garrantziaren inguruko informazioa emango da, emakumeon ongizate eta osasunean zuzenean eragiten duten hainbat kontu saihesteko balio baitu. Kasu bakoitzaren bana-banako balorazioa egiteko aukera egongo da, beharrezkoa bada edo emakumeek hala eskatzen badute.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Marina Ruiz Valverde,** dantzari eta koreografoa, zoru pelbikoa sendotzen aditua |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko urriak 14, 21 eta 28; eta azaroak 4, 11, 18 eta 25**<br>Asteartea, 10:30-12:00 |
| **Tokia:** | Sallurtegi Elkartearen lokalak, Agurain |
| **Norentzat:** | 16 urtetik gorako emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Sallurtegiko Emakume Elkartea, Aguraingo Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arabako Foru Aldundia |
| **Inskripzioak:** | Asociación Sallurtegi: 610 74 56 28 |
| **Informazio +:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Bakarrizketa: Magma Mia

Haserre nago, lehertu beharrean nago, odola irakiten dut. Presio handiegia, eta nire zulo guztiak itxita izateko hezi naute. Magma Mia sumendia erupzioan dago! Honako bakarrizketan, adin ertaineko emakume baten ikuspegitik eta umoretik, patriarkatuak egunerokoan gure gorputzei nola eragiten dien lantzen da.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Bea Egizabal,** umorista eta klown feminista |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko urriak 17**<br>Ostirala, 19:30 |
| **Tokia:** | Andra Mari Zinema, Araia |
| **Norentzat:** | Publiko gaztearentzat eta helduentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Asparrenako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Zinema feminista eta kulturartekoa:

## Brecha en el silencio

Honako istorioan, Anak, 19 urteko gazteak, entzumen-desgaitasuna du, eta ehundegi-lantegi batean lan egiten du amarekin, Juliarekin. Juliak, bere alaba esplotatzeaz gain, Manuel eta Sofia anai-arrebak zaintzeko ardura ematen dio. Hori gutxi balitz bezala, haiekin batera Antonio, Juliaren senarra, bizi da, eta Ana abusu ugariren biktima da; horren ondorioz, Anak istorioari ustekabeko norabidea emango dioten erabakiak hartu beharko ditu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Lady Viviana Toro,** Wayra Emakume Elkartea |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko urriak 17**<br>Ostirala, 18:30 |
| **Tokia:** | Micaela Portilla Kultura Etxea, Alegría-Dulantzi |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Emakume Elkartea, Arabako Foru Aldundia, Emakunde, Alegría-Dulantziko Udala<br>Juliana Cuervos aktore venezuelarraren laguntza bereziarekin |
| **Informazio + Inskripzioak** | asociaciondemujereswayra@gmail.com<br>Telefono zenbakia: 603706562 (whatssap) |




# Dokumentala+ Bideoforuma:

## Florecerás, Nicaragua

“Florecerás Nicaragua” dokumentalak 2018ko apiriletik aurrera Nikaragua astindu zuen krisi soziopolitikoaren ondorioz Espainian erbesteratutako emakume feminista nikaraguarren bizitza erretratatzen du. Julietaren, Taniaren, Magyren eta Lornaren istorioen bitartez, erregimenaren mehatxuengatik beren herrialdea utzi behar izan zutela islatzen da, lekualdatzearen erronkei aurre egin eta Nikaraguako gertaerei arreta jartzen dieten bitartean.

Dokumentala ikusi eta gero, Helena Closa zuzendariarekin, protagonistetako batekin eta Nikaraguaren Aldeko Feministen Sareko ordezkari batekin solasaldia egingo da, borroka feministaz eta Euskal Herriko erbesteratuen egoeraz sentsibilizatzeko asmoz.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Mugarik gabe,** Lankidetzako GKE feminista<br>**EH feministak Nika,** Euskal Herrian bizi diren nikaraguarren talde feminista |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko urriak 24**<br>Ostirala, 18:00 |
| **Tokia:** | Manu Yanke Gela. Aguraingo Udala |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Mugarik gabe, Euskal Herriko feministak nikak, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Kontaktua/emaila/esteka edo nola inskribatu behar diren, baldin eta inskripziorik badago. Inskripziorik ez badago, jar zaitez harremanetan info gehiagorako<br>Info + tamara@mugarikgabe.org<br>944154307<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

mugarik gabe




# Sobre la tierra, bajo la sombra. Emakumeak lurraldean, kontakizunak eta islak

Landa eremuko genero-desoreka aztertzea eta ikusaraztea gustatuko litzaizuke? Honako tailerra gune irekia eta abegikorra da, non zu bezalako emakumeek hausnartzeko, esperientziak partekatzeko eta elkarrekin ikasteko aukera izango duten. Literatura, argazkilaritza eta pedagogia uztartzen ditugu giro inklusiboa eta errespetuzkoa sortzeko. Gainera, "Irakurketa Erraza" eta Argazki Lengoaia bezalako tresnak erabiltzen ditugu dena irisgarria eta gertukoa izan dadin.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Natalia Jiménez Guitián**, irakurketa-kluben dinamizatzailea, hezitzailea eta Irakurketa Errazaren bideratzailea |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko urriak 25**<br>Larunbata, 11:00-13:00 |
| **Tokia:** | Micaela Portilla Kultur Etxea, Alegría-Dulantzi |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Elebiduna |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Arabako Argazkilaritza Elkartea, Alegría-Dulantziko Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla, Irakurketa erraza Euskadi, Consonni argitaletxea, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak** | Izen ematea: https://forms.gle/f9eASSGhqAnNBM3c8<br>945 243922 / sociedadfotografica@gmail.com<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

Arabako Argazkilaritza Elkartea Sociedad Fotográfica Alavesa

LF IE

consonni



# Tailerra: Empleguaren zentraltasuna ahalduntze-prozesuetan

Bi orduko tailer hau dinamika parte-hartzailearekin garatuko da, eta honako helburuak ditu: empleguaren garrantziari eta haren zentralitateari buruz hausnartzea, lan-merkatuaren errealitatea ikuspegi feministarekin aztertzea eta, prestakuntzaren nahiz empleguaren alorrean, eskualdeko baliabideak eta egoera ezagutzea.

Landuko diren edukien artean zenbait ezberdintasun landuko dira, hala nola, enplegua eta lana, lana eta autonomia ekonomikoa eta lana eta gaitasunen, zein trebetasunen garapena. Bestalde, lan-merkatuaren lanbide maskulinizatuak eta feminizatuak, sartzeko baldintzak eta prestakuntzaren, nahiz empleguaren alorreko eskualdeko baliabideak ere aztertuko dira.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Mariel Quera Morales,** SARTU Araba eta mugimendu feministako kidea |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko urriak 30**<br>Osteguna, 10:00-12:00 |
| **Tokia:** | Manu Yanke gela, Agurain |
| **Norentzat:** | 16 urtetik gorako emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Sallurtegiko Emakume Elkartea, Aguraingo Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina,<br>sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Tailerra: Autozaintza ikuspegi feministatik

Bi orduko tailer honek dinamika parte-hartzailea izango du, eta, helburu gisa du autozainketa patriarkala eta feminista bereiztea, autozainketa feministak berarekin zer dakarren identifikatzea eta zainketen ikuspegi feministaren inguruan hausnartzea. Landuko diren edukiek zaintza eta autozainketa kontzeptuak, zainketen ikuspegi feminista, autozainketa ikuspegi feministatik eta autozainketa praktikatzeko premisak barnebiltzen dituzte.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Mariel Quera Morales,** SARTU Araba eta mugimendu feministako kidea |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko azaroak 4**<br>Asteartea, 18:00 |
| **Tokia:** | Manu Yanke Gela, Agurain |
| **Norentzat:** | 16 urtetik gorako emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Sallurtegiko Emakume Elkartea<br>Aguraingo Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

AGURAIN



Sallurtegiko Emakumeen Elkartea
Asociación de Mujeres de Sallurtegi

# Tailer praktikoa eta bizipenezkoa: Bakardadetik elkar topo egitera

Tailer honetan, bi bakardade motari buruz hitz egingo dugu: desiratua eta ez-desiratua (isolamendu soziala, alegia), baita horiek gure osasun mentalean eta prozesu emozionaletan nola eragiten duten ere aztertuko dugu.

Bakardadea esperientzia pertsonala eta subjektiboa izanda, zapalkuntza sozialek (adinkeriak eta sexismoak, adibidez) nola zeharkatzen duten aztertuko dugu, feminismotik eta, batik bat, gure bizitzako esperientzietatik abiatutako gogoeten bitartez egingo dugu; horien bidez, ikaskuntza kolektiboaren aldeko apustua egingo dugu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Irene Santo Aguló,** Esterotipak elkartea, osasun mental feminista |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko azaroak 5 eta 12**<br>Asteazkena, 18:00 |
| **Tokia:** | Manu Yanke Gela, Agurain |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat eta genero disidenteentzat.<br>Gehienez 16 pertsona |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Izen ematea:** | Sallurtegi Elkartea: 610 74 56 28 |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Sallurtegi Emakume Elkartea, Aguraingo Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Tailerra: Autodefentsa feminista

Autodefentsa feminista, ahalduntze indibidual eta kolektiborako estrategia da. Erakunde feministetan sortu zen, emakumeei indarkeria matxista identifikatzen eta hartatik hiru esparrutan defendatzen laguntzeko: kognitiboan, fisikoan eta emozionalean. Prebentzio-baliabide teoriko-praktikoa da, eta bidezko defentsarako tresna ere bada. Gakoa ez da soilik indarkeriak maila ezberdinetan jarduten duela jakitea, baizik eta gure eguneroko bizitzako alderdi guztietan horri aurre egitea; autodefentsako hastapena baita egunerokoan patriarkatuari aurre egitea.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Maitena Monroy,** fisioterapeuta, emakumeen aurkako genero-indarkerian aditua, autodefentsa feministako prestakuntzan aitzindaria |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko azaroak 8**<br>Larunbata, 10:00-14:00 eta de 15:00-19:00 |
| **Tokia:** | Kontzeju Gela Zaharra |
| **Norentzat:** | 16 urtetik gorako emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Izen ematea:** | Telefono zenbakia: 688629894, edo helbide elektronikoa: arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Asparrenako Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + :** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina,<br>sare sozialak eta karteldegien bidez |

ASPARRENA



# Euskal Herriko sorgin ehizari buruzko jardunaldiak

## Hitzaldia: Sorginak existitu al ziren? Sorgin ehizaren historia Euskal Herrian

Sorgin ehizaren fenomenoa historiako zein unetan ematen den errepasatuko dugu Amaia Nausiarekin, eta, horrez gain, gaur egun arte heldu den “sorgin” horien, jazarriak izan zirenen, irudi distortsionatua ere landuko dugu. Alde batetik, ipuinen bidez emakume zahar, itsusi, bakarti, gaizto eta abarraren irudia transmititu izan da, eta, bestetik, baita “sorginaren” irudi mitifikatua, hala nola emakume jakintsua, independentea, boteretsua, autonomoa, errebeldea... Baina, **nolakoak ziren egiazki hil zituzten emakume horiek? Zer dela eta jazarri zituzten? Zergatik izan ziren gehienbat emakumeak kondenatuak?**

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Amaia Nausia Pimoulier,** historian doktorea Nafarroako Unibertsitatean eta feminista |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko azaroak 15**<br>Asteazkena, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Andra Mari Zinema, Araia |
| **Norentzat:** | 12 urtetik gorako herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Uharka Taldea, Asparrenako Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

Uharka taldea

ASPARRENA



# Euskal Herriko sorgin ehizari buruzko jardunaldiak

## Sorginak eta akelarreak Asparrenan 1611. urtean

Logroñoko prozesu inkisitoriala (1609-1614) bi arrazoi nagusirengatik jotzen da garrantzitsuena: 2.000 pertsona baino gehiago ikertu eta auzipetu zituzten sorginkeriagatik, eta, horren harira, 1620an sorginkeriazko akusazio publikoak debekatu zituzten, akusatuen istorioak presiopeko asmakizunak zirela zioen txosten batean oinarrituta. Auzipetutako gehienak nafarrak ziren, baina gipuzkoarrak, arabarrak eta bizkaitarrak ere egon ziren. Nahiz eta dokumentazio gehiena galdu izan, gordetakoak xehetasun interesgarriak ematen ditu, hala nola euskaratik gaztelaniarako interpreteen erabilera prozesuetan; Araban itzultzaileak komunikazioa errazteko erabili zirela ageri da euskararekin zerikusia duten auzietan, Pedro Ruiz de Eguino komisarioa kasu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Kike Fernández de Pinedo,** euskal filologian lizentziatua eta bigarren hezkuntzako irakaslea |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko azaroak 22**<br>Larunbata, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Andra Mari Zinema, Araia |
| **Norentzat:** | 12 urtetik gorako herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Elebiduna |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Uharka Taldea<br>Asparrenako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

Uharka taldea



# Euskal Herriko sorgin ehizari buruzko jardunaldiak

## Zine-Foruma: Sorgina, banaiz

*Gure mendietan dantzan oraindik bizirik daude suak*
*Zeinek piztu zituen?*
*Sinetsi egin dugu inkisidoreen kontakizuna?*
*Ala bihotzak erraten digu gure arbasoak zuzen zirela*
*Azken arnasa arte ziotelarik ez zekitela sorgina izatea*
*zer zen eta akelarreak zer ziren ere?*

Zenbateraino ezagutzen dugu benetan gure historia? Honakoan, gure historiako pasarterik ilunenetako baten kausak eta ondorioak aztertuko ditugu: sorgin-ehiza Nafarroan. Politikak, erlijioak eta beldurrak, bidegabeki akusatutako milaka pertsonen bizitza nola moldatu zuten ulertzen lagunduko digu *Sorgina banaiz* dokumentalak; horrez gain, kontakizun ofizialak zalantzan jartzera eta gure iraganaren alde ezkutua berraurkitzera ere gonbidatzen gaitu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Asisko Urmeneta,** dokumentalaren zuzendaria |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko azaroak 29 eta 30**<br>Larunbata, 29 docu-forum 18:00-20:00<br>Igandea 30, documental 19:30-20:30 |
| **Tokia:** | Andra Mari Zinema, Araia |
| **Norentzat:** | 12 urtetik gorako herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Zinema: euskara (azpitituluak gaztelaniaz)<br>Forum: Elebiduna |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Uharka Taldea, Asparrenako Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

Uharka taldea



# Tailer praktikoa eta bizipenezkoa: Generoa eta osasun mentala

## Nola erlazionatzen dira?

Bi saiotan banatutako honako tailerrean, genero eraikuntzak, emakumeok, nahiz genero disidenteok gizartean okupatzen ditugun tokiek, osasun mentalean eta prozesu emozionaletan zer-nolako eragina duten aztertuko dugu.

Horretarako, bizitako esperientziak elkarbanatu eta horietatik jakinduria kolektiboa sustatuko dugu. Osasun-eredu androzentrikotik beti aztergai izan garela aintzat harturik, norbanakoa jakintzaren eraikuntzan aktibo izatea proposatzen dugu hemen.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Irene Santo Aguló,** Esterotipak elkartea, osasun mental feminista |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko azaroak 17 eta 24**<br>Astelehena, 17:00-19:00 |
| **Tokia:** | Zalduondoko udaletxea |
| **Norentzat:** | 16 urtetik gorako emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Zalduondoko Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

**IRURAIZ-GAUNA**




# Ihes-gela: Laborategia

Jarduera honen helburu nagusia sexuen arteko ametsen arrakala haustea da; batez ere, gradu eta lanbide zientifiko, nahiz teknologikoetan. Ausartzen al zara pausoa ematera?

EZIN DA IKERTU, MISTERIO HANDI BAT. Laborategiek itxi egin dute, oso datu garrantzitsua behar baitute. Mundu-mailako deialdia dago informazio hori aurkitzeko. Datu hori aurkitzea funtsezkoa da ikerketekin jarraitzeko. 30 minutu ditugu aurkitzeko edo, bestela, laborategiek ezingo dute berriro ireki.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Maite Ortega Zubikaray,** kultura-ekitaldien antolatzailea, genero-berdintasunean aditua |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko azaroak 23**<br>Igandea, 11:00etatik aurrera, pase desberdinetan:<br>11:30-12:00 / 12:00-12:30 / 12:30-13:00 /13:00-13:30<br>13:30-14:00 / 14:00-14:30 / 14:30-15:00 |
| **Tokia:** | Gazeo Zentro Soziala |
| **Norentzat:** | Gazteentzat eta helduentzat.12 urtetik beherakoak, lagunduta. |
| **Hizkuntza:** | Euskara edo gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Iruraiz-Gaunako Udala, Gazeoko Kontzejua, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

**ELBURGO/ BURGELU**




# Ihes-gela: Ahalduntze sexuala

Asmakizunak ebatziz, erronkak gaindituz eta giltzarrapoak zabalduz, taldeak aurrera egingo du funtsezko gaiak landuko dituen ibilbidean, hala nola identitate sexuala, autoezagutza, plazera eta patriarkatuak sexualitatean duen eragina. Ariketan zehar, mitoak desmuntatuko dira, baimenaren eta adostasunaren arteko ezberdintasuna landuko da, eta lodifobiaren, presio estetikoaren eta berdintasunaren irudikeriaren inguruan hausnartuko da. Hori guztiori metodologia parte-hartzailearekin eta taldean ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatuz. Sexualitatea gozamenetik, errespetutik eta aniztasunetik birpentsatzera bultzatzen duen proposamen esperimentala eta dinamikoa. Ez galdu aukera!

**Dinamizatzailea:** **Munduberriak. EIES** (Escuela Internacional de Empoderamiento sexual)

**Data eta ordutegia:** **2025eko azaroak 28**
Ostirala, 17:00-19:00

**Tokia:** Landederra Kiroldegia, Burgelu

**Norentzat:** 16 urtetik gorako gazteentzat

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-ematea:** Burgeluko Udala: 945 42 00 27

**Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** Burgeluko Udala, ARGIA emakume taldea, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arabako Foru Aldundia

**Informazio + Inskripzioak:** Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua
945 30 12 00
arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus
eta LAUTADA GOZATU aldizkaria
Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez

argia

**ALEGRÍA-DULANTZI**




# Ipuin antzeztuak: Cuentos para desterrar a Barba Azul

¿Qué pasaría si alguien nos contara que fue Caperucita la que se comió al lobo, que la Cenicienta no quiso ir al baile ni casarse con el príncipe, y que Blancanieves se negó a lavar, barrer, fregar y cocinar en la casa de los 7 enanitos? ¿Qué pasaría si alguien nos contara que no existen los príncipes azules, ni las varitas mágicas, que los zapatos de cristal hacen mucho daño, y que los vestidos de oro y plata no son sólo para unas pocas...? ¿Qué pasaría?

A través de esta propuesta artística se contarán relatos que ponen la mirada en los comportamientos de violencia de género que todavía permanecen en nuestra sociedad del siglo XXI. Cuentos y leyendas para promover el respeto y la tolerancia, transmitir arquetipos variados basados en la igualdad y en la no-violencia, en el Buen trato y el cuidado entre las personas.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Cristina Kolumelah,** zuzendaria, aktorea, gidoilaria eta ipuin kontalaria |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko azaroak 28**<br>Ostirala, 19:30-20:30 |
| **Tokia:** | Txema Blasco Auditorioa, Alegría-Dulantzi |
| **Norentzat:** | Gazteentzat eta helduentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Dulantziko Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | www.alegria-dulantzi.eus<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Kontzertu didaktikoa: Emakume abeslariak

Kontzertu didaktiko honetan, emakume abeslari nabarmenetako batzuen abestiak eta istorioak kantatuko eta kontatuko ditugu. Horretarako, estilo, garai eta hizkuntza ezberdinetako musika nahastuko dugu (klasikoak, herrikoiak, tradizionalak, R&B, bluesa...). Abestien letren eta Nina Simone, Edith Piaf, Izaro, Rocío Jurado, Beyoncé eta abarren bizipenen bitartez, emakumeek aurre egin behar izan dieten errealitateari eta zailtasunei buruz hitz egingo dugu; horretarako, intersekzionalitatea, sexu aniztasuna, genero indarkeria eta matxismoa bezalako gaiak mahai gainean jarriko ditugu. Espazio mistoa sortu nahian, publiko gazteari, helduari eta familiei zuzenduta dago; hausnarketarako eta artista hauen lanaren gozamenerako nahiz ezagutzarako gonbidapena da. Ez galdu aukera!

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Pollo Rosa produzioak,** genero ikuspegia eta musika asko duen antzerkia |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko azaroak 30**<br>Igandea, 12:00etatik aurrera |
| **Tokia:** | Lazarraga jauregia. Zalduondo |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Zalduondoko Udala, Arabako Lautadako Kuadrilla, Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Haurtzaindegi-zerbitzua, gutxienez 3 egun lehenago eskatuz gero<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

## ALEGRÍA-DULANTZI




# Antzerkia: RedNudes

Ikuskizunaren trama nagusia “Sexpreading”, edo material grafikoa sareen bidez baimenik gabe zabaltzearen fenomenoaren inguruan egituratzen da. Horren harira, gazteen harreman afektibo eta sexualak baimentzeari buruzko eztabaidan sartuko gara. Ikuskizunaren helburu nagusia da gazteen artean errespetuan eta aukeratzeko askatasunean oinarritutako tratu onaren kultura sustatzea, antzerkia baliabide gisa erabiliz helburu hori lortu ahal izateko. Halaber, ikusarazi ere tratu onaren kultura horrek —sexuarekin ez ezik— lotura zuzena duela errespetuarekin, entzutearekin, desioarekin, berdintasunezko harremanekin eta hautatzeko aukerarekin.

| | |
|---|---|
| **Antzerki-konpainia:** | **Pikor teatro** |
| **Datak eta orduak:** | **2025ko abenduak 12**<br>Ostirala, 19:30 |
| **Tokia:** | Txema Blasco auditorian<br>Dulantzin |
| **Norentzat:** | Bereziki publiko gazteentzat eta helduentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelaniaz |
| **Antolatzaileak, kolaboratzaileak:** | Dulantziko Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| **+ informazio +, eta inskripzioak:** | Dulantziko Udalan<br>Arabako Lautadako berdintasun Zerbitzuan<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkarian<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina,<br>sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Afrikaldia, 2025eko Afrikako zinemaren euskal jaialdia

## Waiting for men

Filmak, testuinguru islamiar oso patriarkal batean, hiru emakumek sortzen duten espazio intimoa erakusten du, non beren sexualitateaz, emozioez eta gizonekiko harremanei buruz askatasunez hitz egin dezaketen. Elkarrizketa hauen bidez, beren egoerari buruzko kontzientzia hartzeko nahiz hausnartzeko duten gaitasuna erakusten da, eta hori erresistentziaren eta autonomiaren erakusgarri da. Bestalde, gizon migranteen falta dela kausa, emakumeek ardura ekonomiko eta familiar berriak beraien gain hartzen dituztela ere ikus daiteke. Artea eta euren arteko elkarrizketak nork bere burua adierazteko eta ahizpatasuna indartzeko erreminta bihurtzen dira. Filmak emakume musulmanen inguruko estereotipoei aurre egiten die eta, horrez gain, emakumeon errealitatea askatasunez eta ikuspegi kritikoz aztertzeko aukera ere ematen du.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Afrikaldia** |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko abenduak 14**<br>Ostirala, 18:00 |
| **Tokia:** | Erentxungo Zentro Soziala |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Arabako Foru Aldundia, Arabako Lautadako Kuadrilla, Iruraiz-Gaunako Udala, Erentxungo Kontzejua |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkarian<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

**DONEMILIAGA / SAN MILLAN**




# Afrikaldia, 2025eko Afrikako zinemaren euskal jaialdia

## Price of love

Adís Abeban girotutako istorio honek amatasuna eta negofeminismoa bezalako kontzeptuak azaleratzen ditu, emakumeek eta gizonek rol, nahiz egitura patriarkalak nola birnegoziatu ditzaketen azaltzeko. Prostituzioa eta indarkeria matxista ikuspegi sozial eta komunitariotik lantzen dira. Filmak gizonak salbatzaile gisa irudikatzea saihesten du, eta eraldaketa partekatuaren aldeko apustua egiten du. Horrez gain, maskulinitate positiboa ezberdintasunak desagerrarazteko giltzarri gisa planteatzen da. Filmak, ekonomia- eta klase-faktoreek genero-indarkeria areagotu eta emakumeek bizitza duina eta librea izateko duten aukera mugatzen dutela erakusten du.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Afrikaldia** |
| **Data eta ordutegia:** | **2025eko abenduaren 26**<br>17:30 zine-forum<br>19:30 merienda |
| **Tokia:** | Narbaixako Zentro Soziala |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | Arabako Foru Aldundia, Arabako Lautadako Kuadrilla, San Millán/Donemiliagako Udala, Narbaixako Kontzejua |
| **Informazio + Inskripzioak:** | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkarian<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

AFK



# Landa-mekanika tailerrak: Ekin diezaiogun erremintekin

Tailer honek, ekofeminismoaren begiradari esker, landa-eremuari so egiten dio, eta, bizitzeko eta baliabideak kontserbatzeko, birziklatzea eta hondakinak murriztea aldarrikatzen du. Emakumeak*, pertsona ez-binarioak eta transak, ezarritako rolak apurtzen jarraitzera animatu nahi ditu, eta, horrez gain, oraindik ezezagunak eta galduak diren esparruetako figura maskulinoekiko mendekotasunak sortutako desoerosotasuna alde batera utzi nahi du, hala nola nekazaritza-tresna mekaniko zein elektrikoen mantentze-lanak egitean eta matxuren konponketan sortzen dena. Tresna horiek erabiltzeak, mantentzeak eta konpontzeak autonomia handiagoa eskaintzen digula konturatzeko aukera da, baita gogobetetzea eta autoestimua ere; izan ere, guk geuk egiten ditugun gauzek gainerakoek ez bezalako balioa hartzen dute.

**Edukiak:**

**Mekanikaren hastapenak** Lanabesak eta erabilerak
**Motor motak** Piezen ezagutza. Autogestiorako mekanika hiztegia. Ezberdintasunak eta funtzionamendua.
**Oinarrizko eragiketak.**
**Mantentze-lana**: Belarra mozteko makina, motozerra, motokultorea, sasiak garbitzeko.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Paz Carbajosa,** soinu eta argiztapen teknikoa, ibilgailuen elektromekanikako teknikaria eta ekintzaile feminista |
| **Data eta ordutegia:** | **2026ko otsailak 6, 13, 20** eta **27; eta martxoak 6, 13, 20 eta 27**<br>Ostirala, 17:30-20:30 |
| **Tokia:** | Donemiliagako Udalaren eranskin multifuntzionala |
| **Norentzat:** | 16 urtetik gorako emakumeentzat, persona ez bitarrentzat eta transentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – Kolaboratzaileak:** | San Millán/Donemiliagako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| **Izen-ematea:** | San Millán/Donemiliagako Udala: 945 30 04 72 |
| **Informazio + Inskripzioak:** | San Millán/Donemiliagako Udala - 945 30 04 72<br>https://www.donemiliaga.eus/<br>Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua - 945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasun@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkarian<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Berdintasunaren aldeko Arabako Lautadako elkarteen lana

Irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeek, beren aniztasun eta esperientziarekin, genero- desorekaren inguruko hausnarketa kritikoa sustatzen duten hezkuntza-programak, tailerrak, jarduerak, ekintzak eta proiektuak garatzen dituzte, besteak beste. Arabako Foru Aldundia aliatu eta bideratzaile gisa kokatzen da, jendarteak aurrera egin dezan laguntzen duten ekimenak bultzatuz eta babestuz.

Taula honetan, Arabako Lautadako Kuadrillan hainbat proiektu aurreikusita dituzten erakunde guztiak aurkituko dituzue:

| ENTITATEA ↓ | PROIEKTUA ↓ |
|---|---|
| **Aratzpe Guraso Elkartea** | Sexu-hezkuntzako programa: Jokaera oneko harremanetarantz |
| **Haritza Guraso Elkartea** | Sexu-hezkuntzako programa: Jokaera oneko harremanetarantz |
| **Aniturri Institutuko Guraso Elkartea** | Sexu-hezkuntzako programa: Jokaera oneko harremanetarantz |
| **Dulantziko Ikastetxe publikoko Guraso Elkartea** | Sexualitate tailerrak Lehen Hezkuntzan |